

ZORRETAN

(MI DEUDA)

Lurrean ez dago satorrik, zuloak besterik ez.
No quedan ya topos en la tierra, tan sólo sus agujeros.

HIK
TEATROA

ESTREINALDIA 2024KO UDAZKENEAN.



ZORRETAN

Egilea Agurtzane Intxaurrega

**Amatasuna, zaintza eta maitasunari
buruzko tragikomedia absurdoa.**

ESTREINALDIA

urriaren 25 eta 26an. Donostia



HIKA Teatroa

2024ean HIKA TEATROAK 35 urte beteko ditu Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean, poesia bisuala eta errebeldia eszenikoa neurri berean maite dituen emakumea. HIKAren produkzioek izaera sozial nabaria dute, eta ikusleak beren buruekin gatazkan jartzen saiatzen dira.

35 urte ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula izango

HIKA antzerki garaikidea da, erronka artistikoen etengabeko bilaketa eta berritzea, ekoizpen berri bakoitza etiketak uxatzeko aldarri. Antzerkiak gain, zirkua, musika eta dantzak toki nabarmena hartu dute bere sormen lanetan, diziplina guztiei atea irekitzea eta emaitza integral bat eskaintzea beti berritzen egotea dela sinetsita.

35 urteak ospatu nahi ditugu

Ibilbide luze honetan, HIKA teatroa kulturak berak bizi izan dituen aldaketa eta moldaketetara egokituz joan da. Hala eta guztiz ere, beti eutsi dio bere izaera sozialari, arte eszenikoak gizarteko arazoak lantzeko eta hausnarketa bideak irekitzeko bidea direla konbentziturik. Hastapenetatik gizartean pil pilean egon diren gaiak landu ditu: Etxebizitzaren arazoa (*Eta ohea egin gabe*, 1989); Intsumisioa (*Chaplin tropela*, 1990); Guggenheim efektua (*Ongi etorri etsai hori*, 1993); Genero indarkeria (*Hitzak*, 2012); Tradizioa eta erlijioaren pisua gizarte heteropatriarkalean (*Koaderno Zuri*, 2016); Migrazioaren errealitate bortitza (*Tonbola*, 2020). Gaur egungo gazteei ahotsa emango dien kaleko dantza ikuskizuna, (*Gazte*, 2020); Adin txikikoei sexu abusuak, genero identitatea, (*Tarara*, 2021)

30etik gora IKUSKIZUN propio, 30 EKITALDI nahierara, 2 BITARTEKARITZA proiektu propio

HIKAren ibilbide honetan, ekoizpen propioez gain, nahierara egindako ikuskizunek ere pisua izan dute azken urteetan. Gehienetan erakundeetatik etorri da eskaera, eta HIKAk memoria historikoa landu du batez ere haietan. Guztiak diziplina anitzak batu dituzten ikuskizunak izan dira, profesional handiekin eginak. Besteak beste: *Ez gaude konforme. Lourdes eta hamaika lore* (Lourdes Iriondo artistaren ibilbide profesionalari omenaldia. EITB, 2020); *Afrika, aniztasunaren itsasoa* (2018ko Olatu Talkaren inaugurazio ekitaldia. Donostia Kultura); *Gernikako bonbardeaketaren 80. urteurrena* (2017. Gogora Institutua); *Trenak ekarri, gerrak eraman* (Gerra Zibileko garaiko trenbideetako langileei omenaldia. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2017).

Halaber, HIKAren apusturik sendonetakoa gizartearekin lan egitea izan da. Egungo kultur politikek eta gizarte honek daukan aniztasuna kontutan hartuta, kultur ekosisteman eragile aktibo izan nahi izan du. Horren harira, azken bost urteetan bere ekoizpen guztiek publiko berri eta aktiboak sortzeko mediazio eta sentsibilizazio programak eraiki ditu. Guztietan herriaren edo herriko kolektiboen partaidetza bultzatuz.

Zalantzarik gabe, *Zapata Berriak* (Astigarragako Udalarekin elkarlanean, 2020) eta *Txalostean* (Lezoko ukdalarekin elkarlanean, 2023) proiektuak dira bitartekaritza lan honen erakusgarri garbienak.

Euskal kultura & Euskal antzerkia bizi eta biziarazten.

Aipatu beharra dago ere HIKAk euskal kulturarekin eta euskararekin daukan konpromisoa. Euskaraz bizi da eta euskaraz sortzen du. Badu adar bat, Oinkari Dantza Taldearekin elkarlanean, bereziki euskal kultura biziarazteko eta hedatzeko helburu duena. *Itsasoaren emazteak* (2013); *Sagartu* (2017) eta *Gazte* (estreinaldia, 2021) ikuskizunak horren adibide dira. Euskal dantzatik abiatuta, dantza garaikiderako bidea jorratzen ari dira lengoaia eta estetika propioa eraikiz.

“Kulturaren etorkizuna ezinezkoa izango da emakumeek kulturak eskaintzen dituen sektore guztietan parte hartzeko aukera ez badute. Sortzaile moduan, ekoizle moduan, herritar eta kontsumitzaile moduan, alegia”.

Ammu Joseph, 2018.


Agurtzane Intxaurrega, egile eta zuzendari

ZORRETAN

Amaren gaia zilbor heste luzea da, kilometrikoa, sekula egunerokotasunik galtzen ez duen gaia. Esaerak dio, gainera, ama bakarra dela munduan, baina nik ama bakoitza mundu bat dela pentsatu nuen paper zuriaren aurrean jarri nintzenean.

Komedia bat idaztea izan zen nire lehen asmoa, baina bizitzaren pare, laster hasi nintzen komediatik trajediara salto egiten, are gehiago, estilo batetik bestera jausten. Eta jolas horretan bakarriketa poetikoak, elkarrizketa umoretsuak eta eszena absurdoak harilkatzen joan ziren bata bestearen atzetik. Zergatik ez? Urte guzti hauetan HIKAK dena edo ia dena probatzeko aukera eman dit. Eszenari lotutako zilbor luze honetan (2024ean 35 urte) neuretik eta neugandik sortutako zerbait egiteak zentzua zeukala pentsatu nuen. Nire zuzendari NI-a eta gainontzeko NI GUZTIAK, idazle, aktore, kudeatzaile, emakume, ume, ama, sorgin, animalia. Denak aurrez aurre jartzeko aukera eder bat bezala bizi izan dut sormen prozesua hau. Eraitza: ZORRETAN/ MI DEUDA: 35 urte luzeen ondoren beldurrei aurre eginez, gogoei erabateko askatasuna emanez, eskarmentuaren babes zabalarekin eta bide berriak probatzeko asmoarekin, sortutako antzerki testua.





ABIAPUNTUA. kaosa buruan.

ZORRAk gaixotu ahal zaitzake.

Zorretan bizitzea kalbario hutsa da

Nire aitak satorrak akatzen zituen. Nik askatzen

Umetan otsoen ipuinak nituen gogokoenak

Bakarrik idaztea ez da lau eskuetara idaztea

AMArek zilbor hestea, heste luzea da Euskal Herrian

Zaintzea gustatzen zaigu? Nork zaintzen du nor? Nork zaintzen gaitu gu?

Lurra jatea ez da txarra. Zaporetsua da lurra

Eguzkiak erre egiten du. Argitasunak biziarazi.

Beldurrak txiki egiten gaitu

Barre egiteak loditu

Beldurrak hitzak jaten ditu

Hitzak askatu egin behar dira

Barre egingo du publikoak?

Egitea zoragarria da

Emozionatzea are gehiago.

Heriotza eta bizitza, bat bera diren bi emozio



ZAINTZA

Zer gertatzen da nire aukera zu ez zaintzea bada?

Ez nazazu zaindu, ez dut nahi, ez dut behar.

Maite zaitut, inork ez bezala maite zaitut eta hala ere, ezingo zaitut zure erara zaindu.

Zergatik da horren zaila zu zaintzea?

MAITASUNA

Baldintzarik gabeko maitasuna maite dut.

AMATASUNA

Ama izan? Zer nolako ama izango nintzan? Nahiago ez jakin. Nahiago ez izan. Badaezpada ez izan. Horixe nire hautua. Ez izatea.

Eta hala ere, zaindu gaitezen, maitatu gaitezen, izan gaitezen nahi dut.

Hala ere **ZORRETAN** izango gara

SINOPSISIA

EMAKUMEA eta GIZONA bikote dira aspalditik. Gaur EMAKUMEA aztoratuta iritsi da etxera. Amarekin telefonoz hitz egin du eta beraiekin bizitzera datorrela ulertu dio. Uste du hori dela bere egonezinaren arrazoi eta etxera iristean, GIZONARI kontuak eskatzen hasiko zaio. Hau ere ez dago bere onenean, ordea. Egun handietarako erabiltzen duen gorbata berdea aurkitzen saiatzen ari da eta urduri dago. Are urduriago EMAKUMEAK berea den pijama soinean duela jantzita ikustean. Joan egin behar du, baina ezerk ez dirudi lekuan. Etxea aldrebestuta izateaz gain, badirudi bizitza dela aldrebestu zaiena. Emakumea normaltasunera itzultzeko borrokan ari da, baina lur azpian hondoratzen ari dela sentitzen du eta eusteko moduan daukan esku bakarra amarena omen. Emakumeak, ez du nahi eta uko egiten dio hori horrela izateari. Nahiago lur azpian bizi azal lodiko sator bihurtuta amarekin baino.

Kontakizunean zehar egoera komikoak, absurduak edo surrealistik txandatur ibiliko dira, pertsonaien iraganaren, orainaren edo etorkizunaren artean biziko den narrazio hautsia eraikiz. EMAKUMEAK bere mamuen aurka borrokatu beharko du, amarekin izandako harremana gogora ekarriz eta haurtzaroko beldurrak eta iraganeko minak agerian utzita.

Bien bitartean, AMAREN presentziak ukitu absurdo eta baita magikoa ere erantsiko dio amatasuna, zaintza eta maitasunari buruz hitz egiten duen tragikomedia absurdo honi.

TESTU LAGINAK

(...)

EMAKUMEA: Esan diozu?

GIZONA: Esan? Berak esan dit deitu diozula, gero bera aritu omen zaizu deika baina zuk ez omen diozu hartu. Berak esan dit. Horixe esan dit.

EMAKUMEA: Ezin diot egunean hamar aldiz hartu.

GIZONA: Zerbait izango zuen. Izango zuen zerbait esateko

EMAKUMEA: Esan zer? Horixe da jakin nahi dudana. Zer da zuk esan diozuna?

GIZONA: Gauza handirik ez, badakizu, aspaldi ez zait gehiegi esatea gustatzen. (...) Gorbata berdea behar dut. Hara! horixe da esateko nuen bigarren gauza. Ikusi duzu?

EMAKUMEA: Ez. (...) Esan. Etxera etortzeko esan diozu?

GIZONA: Ez dakit zer esan diodan. Dena dago aldrebestuta. Dena tokiz kanpo.

EMAKUMEA: Gu eta gure etxea gara. Badakigu non gauden?

GIZONA: Non dagoen zer? Ez dakit, eta zu oraindik pijaman, eta nik beste zerbait nuen zuri esateko. Hiru gauza ziren. Hiru.

(...)

EMAKUMEA: Kaixo ama, zelan?

AMA: Beti legez. Zu ondo?

EMAKUMEA: Bai, dena ondo.

AMA: Lanean egongo zinen. Deitu dizut eta ez duzu hartu.

EMAKUMEA: Ezin nuen hartu.

AMA: Eskerrak hil behar nuela esateko izan ez den.

EMAKUMEA: Medaila bat ekarri dizut botoi batekin, hain zuen horixe ekiditeko.

AMA: Medaila bat niri? zertarako?

EMAKUMEA: Hilurretik hiltzen ari zarela jakinarazteko.

AMA: Jesus umea, hainbeste hil eta hilondo, ni hiltzea nahi duzula ematen du

EMAKUMEA: Medaila berezia da. Zerbait gertatuz gero eta bakarrik egonda, botoi honi eman eta segituan norbait jarriko da zurekin kontaktuan

AMA: Emango diot.

EMAKUMEA: Ez ba, ez eman

AMA: Emango diot

EMAKUMEA: Ezetz, ez da jolaserako

AMA: Zertarako den ikusi nahi dut

EMAKUMEA: Ama, gogoan duzu Pedro eta otsoaren ipuina? Umetan kontaktzen zenidana eta nik hainbeste maite nuena? Berriro entzun nahiko nuke.

(...)

DIDASKALIA GIZONA: Egun batez bazen ama otso bat. Ama handia eta astuna, atsotuta dagoen otsoa: Dolores. Munduan nagusiak egin diren milioika otso-pertsona horietako bat da Dolores.

AMA: Auuu!



TALDE ARTISTIKOA

aktoreak

MIREN GAZTAÑAGA, JABI BARANDIARAN, IÑAKE IRASTORTZA

egilea eta zuzendaria

AGURTZANE INTXAURRAGA

soinu maparen diseinua

XABIER ERKIZIA



CURRIKULUMAK

MIREN GAZTAÑAGA (24 urte eszenan)

Dena ematen duen eszena-piztia da. Eszenan gorputzak hitzegitea bilatzen du. Beldurrak izanez gero, eszenatik kanpo uzten ditu. Proposamen ausarten zale amorratua da

JABI BARANDIARAN (25 urte eszenan)

Euskal eszenak duen lengoaia berrien erreferenteetako bat. Proposamen absurdoen maitalea. Pertsona indartsua bezain ahula, heroia zein anti-heroia. Bizitzan bezala bi muturren tartean mugitzen dena.

IÑAKE IRARTORZA (39 urte eszenan)

Euskal antzerkiaren erreferentea. Emakume txikia bezain aktore handia. Umorea maite du, dramarako erraztasuna dauka eta lan egiteko urrea balio du. Beti dauka irri bat ahotan.

AGURTZANE INTXAURRAGA (34 urte eszenan)

Langile amorratua eta sortzaile anitza. Eszenatokiak dira bere errebeldia gune naturalak. Ez ditu etiketak maite eta aldiro haietatik ihes egiten saiatzen da. HIKA da bere sormen laborategi partikularra. Animalia balitz, zaldia izango zen.

XABI ERKIZIA (30 urte entzuten)

Soinu artista, ikerlari independentea, ekoizle artistikoa, kazetari eta entzulea. Azken 30 urteotan alor anitzetan lan egin du entzumena eta soinugintzarekin zerikusia duten egitasmotan. Lo egiten dugunean ere, entzuten jarraitzen dugula dio.

FITXA ARTISTIKO OSOA

Egilea eta Zuzendaria: **Agurtzane Intxaurreaga**

Zuzendari laguntzailea: **Miren Gojenola**

Interpreteak: **Miren Gaztañaga, Jabi Barandiaran, Iñake Irastorza**

Soinu maparen diseinua: **Xabi Erkizia**

Argien diseinua: **Xabi Lozano**

Espazioa eta Jantzien diseinua: **Xabi Mujika, Agurtzane Intxaurreaga**

Errealizazioak: (zehaztu gabe)

Grafika diseinua: **Santos Bregaña**

Promozio bideoak: **Acrónica producciones**

Argazkiak: (zehaztu gabe)

Talde teknikoa: **Acrónica producciones**

Ekoizpen exekutiboa: **Hika teatroa**

Komunikazioa: **Nagore Martínez**

Administrazioa: **Asun Etxeberria**

Banaketa: **(Nagore Martínez Euskal Herrian. 633252200 / 656792501)**



ESTREINALDIA
urriaren 25 eta 26an.
DONOSTIA

“35. urteurrena ospatzeko modu bikaina”

ZORRETAN



HIK
TEATROA

Aldapa kalea 14. Donostia. Gipuzkoa

T 633 252 200 - 656 792 501

hika@hikateatroa.eus

www.hikateatroa.eus